

ZUBIBEGIBIDEZU

Txakañahuiñambican (kitxuaz)

**Shupuka kapuka tyaapa ñu
(cha'palaatxiz)**

Harreman bidaia.

**Euskal herritik txatxi eta
kitxua herrietara**

MIKELAZULO KULTUR ELKARTEA


I.- Bide miragarri eta magikoa hasia da: Zubibegibidezu

Errenteriako Mikelazulo kultur elkarteak proiektu berri bat jarri du martxan. Zazpi urtez segidan ospatu diren Herrien Asteetako urratsen segidan eta Senegaleko wolof eta diola herrietara eginiko kultur espedizioaren ildo beretsutik, aukera sortu zaigu beste herri batzuei besarkada bat ematera joateko. 2003ko urrian izango da.

Kitxua eta txatxi herriei, baldintzarik gabe, onarpena eta begirunea adierazi nahi diegu guk, euskal herriko bidaiariak. Nortasunetik nortasunera, norberaren bizimodua, kultura, historia, esperientziak eta hizkuntza besteari opari gisa eskeiniz, elkar ezagutuko dugu, gizadiaren osagarri garrantzitsu izate-

aren esperientzia biziko dugu. Lurrarekiko harremana, komunitateen bizipena, norbanakoen garapena, osasuna, hezkuntza, festa, mitoak... nola bizi duten ikusi eta ikasiko dugu eta aberastasun guzti hori Euskal Herrira ekarriko dugu. Txa'palaatxi, euskara eta kitxua hizkuntzen egoera eta ahaleginen berri elkarri emango diogu. Bizi ditugun amets eta zailtasun, poz eta sufrimenduen berri izango dugu. Milaka urteetako ondorioa gara euskaldunak, baita ketxuak eta txatxiak ere, jatorrizko herriak baikara. Altxor askoren jabe dira bi herri horiek eta altxor trukaketan ahaleginduko gara Mikela-zuloko kideak.

Bidai-kide bakoitzak bere izakera, kalitate berezia, ahalmen errepikaezina ditu. Bakoitzak bere egarriak, egitasmu, amets eta animoak. Eta hori ere jokoan jarri nahi dugu: sormenaren esperientzia egin nahi



dugu. Gu geu, banaka eta talde gisa, gara bidai honen erdigunea. Garena eman ez eta eskein ez, bizitza opari bat dela frogatu nahi dugu eta berdintasunaren, laguntasunaren eta askatasunaren diskurtsoa bizi nahi dugu. Txatxi eta kitxua herrietako pertsonen bihotza irekiko diegu, berdinetik berdinerara besarkada bat eman eta eskua zabaldu. Euskal Herrira itzultzerakoan, txatxi eta kitxuekin bizitako esperientziatik abiatuta, gure herrikideen informazio eta gozamenarako hainbat gauza lantzeko asmoarekin goaz.

II.- Non bizi dira kitxuak eta txatxiak. Zer diren. Nola dauden

Ondoko mapan Ecuadorreko lurraldean dauden nazio indioak azaltzen dira. Lurralde horretan lau zonalde geografiko nagusi bereizten dira: kostaldea, mendialdea, amazonia eta Galapagos uharte ospetsua (Pacíficoan). Agurtuko ditugun kitxuak mendialdean, Imbaburu (5.000 m) mendiaren inguru gertuan bizi dira: “Pucuhaco” izango da gure basea. Eta txatxiak kostaldeko baso tropikal ohiantzuan: “Pichiyacu” eta “San Salvador” komunitate txatxietan egongo gara. Horrez gain Esmeraldas eta Ibarra hirietan egun bana egonen gara eta “Avenida de los Volcanes” lurralde harrigarriaren barrena ibilaldia egingo dugu.

TXATXI HERRIA

“Txatxi” herria, Ecuadorreko iparraldean Esmeraldas probintziako ohianean, Cayapas, Verde, Canandé, Cojimés erretako ertzetan dago aspaldiko mendetan. Gaur egun, 4.000 inguru dira eta Quinindé, Muisne eta Esmeraldas kantoietan bizi dira. “Txatxi” hitzak gizakia esan nahi du. Beren hizkuntza “Txa’palaatxi” da. Oraintsu arte, beren mitoetan, hizkuntzan, giza-harremanen antolakuntzan eta lurrarekiko harremanetan, jatorrizko herri gisa bizi izan du.

Azken hamarkadetan bereziki, bidegurutzean dago. Beren bizimoldearekiko eraso bortitza eta orokorra da (merka-

tua, estatu politiko-poliziala, adoktrinamendu kulturala, bazterketa linguistikoa, lurraren suntsiketa...). Eraso honen ondorioz latzenetako bat da txatxien lurraldeetan egurgintzako multinazionalak egindako negozioaren ondorioa: onkozerkosisa. Gaixotasun hori harrapatu duen pertsona itsu bihurtzen da. Gaur egun txatxien artean %40-50a gaixotasun horrek hartua dago. Amore emanez gainera datorrena, nortasuna galduz Ecuadorreko gizartean mailarik bajeanean, eta baztertuen artean baztertuenak izanik, "integratzea" da. Baina txatxi herria bizirik irauteko borondatea eta ahalegina erakusten ari da: txatxipalaatxi hizkuntzaren gramatika bada eta eskoletan erakusten hasi da; gainera txatxi herria CONAIE (Confederación de Naciones Indígenas del Ecuador)-eko partaide da.

KITXUA HERRIA

Kitxua herriak Andes mendikatearen bailaretan bizi dira. Bere hizkuntza "kitxua" da. Ecuadorren 3.000.000 inguru dira. Ecuarunari da Ecuadorreko Herri Kitxuen konfederazioaren izena. Ecuarunari da, bestalde, CONAIE erakundearen partaiderik handiena. Baina kitxua herria, Perun eta Bolivian nagusiki eta Kolonbia eta Argentinan ere bizi diren "ketxua" herrien jatorri, antolakuntza soziala, mundu ikuskera, bizipen historiko eta hizkuntza berdinekoa da. Horrela herri kitxua eta ketxuak elkaturik 12.000.000tik gora herrikide dituen nazio handi bat osatzen dute.

Nazio hau zen Amerikako konkistaren garaian Inka estatuaren oinarrizko herria eta beren hizkuntza nagusia. Konkistarekin zibilizazio horren leku-sakratuak eta dokumentuak birrinduak, jakintsuen giza-taldeak erahilak, mundu-ikuskerak kondenatua eta giza antolakuntza desegina izan ziren. Indioak gizartean zeharo baztertuak eta mespretxatuak, hizkuntzaren funtzioak familikoetara murriztuak, indioen nortasuna eta gizarte-antolakuntza propioak higadura latz baten presiopean. Independentziarekin osatu ziren estatuen artean zatikatuak izan ziren Kitxua herriak eta lurak.

Aurten, apirilaren 21etik 24era ospatu da Ecuarunari erakundearen lehen batzar nagusia. Erabakietan nortasunaren defentsa eta garapena, lurrarekiko harremanak, hizkuntzaren garapena, beste nazioekiko harremanak, pobrezaren aurrean egin beharrekoak, gobernuaren politikaren aurreko jarrerak... lantzen dira.



ECUADORREKO ESTATUAN

1.821ean sortu zen Ecuadorreko estatua. Txuriek, mestizoek, beltzek eta indioek desberdintasunaren piramide soziala osatu zuten. Hona hemen datu estatistiko batzuk:

***13 milioi biztanle; haurren heriotz-tasa: %82; analfabetismoa % 8-12; pobrezia maila %80 eta txirotasun edo indigentzia maila %40

***Kanpo zorra 14.491 mila milioi dólar (B.P.G.aren %25); lurraren jabegoa (%48 indioen komunitateen esku; %41 esku pribatuak; %1 estatua); urteko deforestazioa (1981-1990) %1,8.

***Petrolioaren eta deforestazioaren ondorio ekologikoak eta osasun aldetikoak ikaragarriak.

CONAIE: HERRI INDIOEN BAIETZA.

CONAIE (Confederación de Naciones Indias del Ecuador) erakundean bildu dira nazio indio guztiak. Erakunde horrek bultzaturik 2.002 urtearen hasieretan Quito hiri-kapitalaren okupazioa antolatu zuten. Gobernu dimititu zuen eta gobernu probisional osatu zen. Esperientzia etzuen iraun. Bainan geroztik, inork ezin du Ecuador irudikatu nazio indioen presentzia nagusia gabe.

BIDAIAREN METAFORA: ZUBIBEGIBIDEZU.

¿Qué es esa palabra mágica? Es el lema y la apuesta de un viaje especial, mágico.

¿Qué viaje? 16 amigos/amigas euskaldunes viajeros de Mikelazulo van a visitar

a las naciones “chachi” (4.000 personas) y “kitxua” (3.000.000) que viven en Ecuador. Llevarán, como es de ley, regalos. Pero sobre todo, a eso van, les daremos un **abrazo**. Justamente vamos a compartir nuestra experiencia con la suya, pues ellos como nosotros han guardado y dado vida a sus respectivas lenguas y a su modo particular de ser en el mundo.

¿Pero qué es **zubibegibidezu**? Es la metáfora de la vitalidad y la magia que puede funcionar en cualquier función de nuestra vida. **Zubi**: haremos un puente desde euskal herria a los pueblos chachi y kitxua; **begi**: mirada de reconocimiento y estima mutua; **bide**: haremos el camino poniendo el dinero al servicio de la metáfora; **zu**: encontraremos al otro, a la hermana y hermano indios, les abrazaremos, celebraremos la dignidad y amistad y volveremos a casa renovados de humanidad.

ZUBIBEGIBIDEZU KAMISETA:

Geure aurreikuspen mendebaltarren itxaso-ekaitz iluna begirunez zeharkatzen badugu gu bezalakoa ez den bestea, “zu” indioa, aurkituko dugu. Eta “anai-arreba indioa” ikusitakoan besarkatuko dugu. Horrekin batera gizadiaren ikuspegi berri-tua biziko dugu. Eta “zu” ezagutzean eta onartzean, gu garena, gure euskaltasunaren neurria eta balioespena zehaztu eta sakonduko zaigu.

Kamiseta erosten baduzu (sorginen zenbaki magikoa, 13 alegia, da eurotan prezioa) zu bihurtzen zara besarkadaren zubiaren egilea. Horregatik, erabaki baduzu erostea ez dizugu oraindik salduko ez baduzu froga definitibo bat gainditzen. Sal-tzen dizunari besarkada bat eman behar diozu berak txatxiei eta kitxuei zurea eskeintzeko.

Txakañahuiñambikan

ZUBIBEGIBIDEZU RAP-A:

Metafora bagenuen: “zubibegibidezu”. Metafora bera kitxuaz jarri dugu: “chakañahuiñanbikan”. Azkenien txa’palaatziz ere jarri dugu: “shupuca capuca tyaapa ñu”. Hirurak elkarren ondoan jarri ditugu.

Nola egiten zuten gauez zubiak sorginak? Harriz harri... Argirik ba al zuten? Hitzez hitz... (hitza baita bizitzaren argia). Nola pasa zubia? Eskuz esku... Eta zer aurkituko? Zu ta Ni...

Eta horrela sortu zen zubibegibidezu rap-a:

ZUBIBEGIBIDEZU... CHACAÑAHUIÑANBICAN... SHUPUCA CAPUCA TYAAPA ÑU
 (euskaraz) (kitxuaz) (cha’palaatziz)
Harriz harri zubi zabal eder handi egin hasi ibil aurre altxa dantza ospa berri

ZUBIBEGIBIDEZU... CHACAÑAHUIÑANBICAN... SHUPUCA CAPUCA TYAAPA ÑU
Hitzez-hitz, sortuz zor, zoriz on, onez har, hartuz argi zure begitan

ZUBIBEGIBIDEZU... CHACAÑAHUIÑANBICAN... SHUPUCA CAPUCA TYAAPA ÑU
Eskuz-esku, eskuz har, har gozo, gozo lan, landu lur, lur opa, kasar beda, besarkada

ZUBIBEGIBIDEZU... CHACAÑAHUIÑANBICAN... SHUPUCA CAPUCA TYAAPA ÑU
Zu ta ni, ni ta zu,, gu ga gu, gu gogo, gogoa.

